



EGIZU GETXO EUSKALDUN elkartea

2023-204 IKASTURTEA

JARDUERAK	Egunak Ordutegiak	Prezioa	Matrikula
BERBALAGUNA: Mintzapraktika taldeak dira, aisialdian, giro naturalean euskaraz berba egiteko talde txikiak antolatzen ditugu.	Egunero, zuen ordutegietara moldatzen saiatzen gara	doan	Urriaren 1etik 30era Urtarrilaren 1etik 31ra
GURASOLAGUNA: Euskaraz berba egiteko ohitura duten gurasoak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzen dira, talde batzuetan umeekin batera. Ikastetxeko gurasoak beste gurasoekin biltzen dituen berbalagunaren aldaera da.	Egunero, zuen ordutegietara moldatzen saiatzen gara	doan	Urriaren 1etik 30era Urtarrilaren 1etik 31ra
UKITX - IRAKURZALEEN TXOKOA: Hilero, euskarazko liburu bat proposatu, irakurri eta azken ostegunean idazlea gonbidatzen dugu gurera liburuaz berba egiteko.	Urritik hasita eta maiatzera arte hileko azken ostegunean 19:30-21:00	doan	Izena eman behar da: egizugetxo@gmail.com 619 93 55 41
IRAKURLE KLUBA: Euskara errazean irakurtzeko espazioa da hau. B1 eta B2 mailarako egokiak diren liburuak proposatzen ditu Lizar Begoña Sopolako idazleak; berak bideratzen du solasaldia eta denon parte hartzea sustatzen du giro atseginean.	Urritik abendura eta martxotik maiatzera arte, hileko bigarren asteartean 19:30-21:00	doan	Izena eman behar da: egizugetxo@gmail.com 619 93 55 41
IDAZALEEN TXOKOA: Taldea idazteko dinamikak proposatuko ditugu. Hilero, Garazi Basterretxea bidelagun dugularik, taldeko kideek elkarrekin idazteko teknika lantzeko ariketak egingo ditugu. Estrategia narratiboak jorratu eta idazleen lanak konparatuko ditugu. Beldurra, lotsa eta ezjakintasunari aurre egiteko balioko digu tailer honek eta gainera sormena garatuko digu euskaraz.	Urritik hasita eta maiatzera arte hilabete erdiko asteazkenetan 19:15-20:45	doan	Izena eman behar da: egizugetxo@gmail.com 619 93 55 41
TXATXARRAK-IDAZKETA TALDE FEMINISTA : Garazi Basterretxea Bareak gidatutako txoko honetan euskal literaturako testuetatik abiatuta,	Urritik hasita eta maiatzera arte hilabeteko bigarren ostegunetan , Romo Kultur Etxean	doan	Izena eman behar da: egizugetxo@gmail.com

dinamika ludiko partehartzaileen bidez, geure testuak sortuko ditugu. Partehartzaileei fikziozko lanak sortzeko tresnak emango zaizkie, nahi dutenari buruz idatz dezaten. Txokoa mistoa izango da eta testuak eta dinamikak ikuspegi feministatik hautatuko dira.	19:30-21:00		619 93 55 41
BIZIKLETA-TALDEA: Hileko lehenengo larunbatean elkartzen gara, laguneren artean, 40-60 kilometroko bizikleta ibilbideak antolatu eta zehazten ditugu, batez ere bide berdeetatik.	Urritik hasita eta ekainera arte hileko lehenengo larunbatean	doan	Urte osoan zehar
MAHAI-JOLAS ETA ROL-JOKOEN TALDEA: Gazte eta helduentzako proposamena Azebarri kultura elkartearekin batera: mahai-jolas eta rol-jokoaren saioak. Azebarri kultur elkartearen lotuko gara. Jolas ezberdinak ikasi eta hauek probatuko ditugu. Talde autonomoa	Hilean behin, arratsaldean.	doan	Urte osoan zehar

IKASTAROA	Yoga-ikastaroa	Urritik ekainera astelehen eta asteazkenetan 19:40etatik 21:10ak arte. Hasier Rekondo irakaslearekin.	120€ hiruhilabetea	Izena eman behar da: egizugetxo@gmail.com 722789302
	Egur-taila ikastaroa	Urritik urtarrilera eta otsailetik maiatzera, astelehenero 17:30etatik 20:30ak arte. Hilean behin Juanra Muela irakaslearekin eta bestelako astelehenetan taldeko kide esperientziadunen laguntzarekin. Tresnak eta lehen ohola barne.	110€ ikasturtea	Izena eman behar da: egizugetxo@gmail.com 619935541
	Euskal Dantzak	Euskal plaza-dantzak ikasteko eta elkarrekin euskaraz gozatzeko lotzen gara ostegunetan 20:00-21:00, Aldai Patronatuan. Interesa baduzu esaiguzu. Partehartzeko oinarritzko dantzak jakin behar dira.	Doan	Izena eman behar da: egizugetxo@gmail.com 722789302

BOLUNTARIOTZA SAREAK	Egunak Ordutegiak	Prezioa	Izen-ematea
BIDELAGUNA IZAN: Zer da? Berbalagun taldeetan bide-lagun figura duen pertsona da, jariozuzenez hitz egiten duen laguntzailea (C1* maila duena). Berbalagun taldea eta egitasmoaren bultzatzaileen arteko zubia da. Zergatik? Euskaraz hitz egiteko beharra dutenak laguntzen dituzulako, euskal hiztunen kopurua handitzen duzulako, hitz egiteko gaitasunak hobetzen dituzulako, herriarekiko sare berriak sortzen laguntzen duzulako, euskal komunitatea handitzen duzulako, eragile aktibo bihurtzen zarelako...	Astean behin, egun batean, ordu betez.	doan	Harremanetarako: egizugetxo@gmail.com
EUSKARAZ GOZATUko bolondres izan: Zer da? Euskaraz gozatu eta umeei gozarazten laguntzeko gure alea ipintzen dugu. Ume askok eskolan besterik ez daukate harremanik euskararekin, arlo akademikoan; Getxon familia edo ingurune euskaldunik ez baduzu zaila da kalean eta eguneroko bizitzan euskaraz arnastea eta gozatea. Nahiz eta bultzada txiki bat besterik ez izan, komunitate eta kultura aniztasuna zainduz zure laguntza eskatzera gatoz.	Astean behin, egun batean, 2 orduz.	doan	Harremanetarako: egizugetxo@gmail.com

BULEGO ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera 8:30-14:30

Telefonoa/ak: 619 93 55 41 / 722 78 93 02 / 622 433 085 (Bizilagunak eta Sendi egitasmoetarako)

E-posta/ak: egizugetxo@gmail.com / sendigetxo@gmail.com / getxobizilagunak@gmail.com /

Web gunea: <https://egizu.eus/>

Sare sozialak:

- Instagram: EGIZU GETXO <https://www.instagram.com/egizugetxo/>
- Facebook: EGIZU GETXO <https://www.facebook.com/egizugetxoenskaldun>
- WEB: <https://egizu.eus/>
- Twitter: EGIZU GETXO @egizugetxo
- Watxap kanala: <https://chat.whatsapp.com/LfsvlN4RByDLp2mKDqdkCr>
- Flickr: <https://www.flickr.com/photos/194121983@N04/albums>
- Telegram: <https://t.me/egizu>
- Youtube: <https://www.youtube.com/@egizugetxoenskaldun3066>